EHUko irakasle den Eider Rodríguezek 'Bihotz handiegia' liburuan bildu dituen sei ipuinak instituzioen errekonozimendua lortu du

*Eider Rodríguez*
IDAZLEA

# "Gaur egun euskal literatura oso momentu ona ari da bizitzen"

✎ *Ane López*en *elkarrizketa*
📷 *Javi Colmenero*ren *argazkia*

**DONOSTIA** – Aurtengo Euskadi Literatura sariaren irabazle da Errenteriako idazlea. 1977an jaioa, publizitate eta zinema ikasketak egin zituen, bere pasioa den literaturan murgildu aurretik.

**Nola hasi zinen literaturaren munduan?**

–Lehenengo liburua 2004an argitaratu nuen. Nik Publizitatea ikasi nuen, ez du literaturarekin zerikusirik baina idaztea gustoko nuenez, honekin jarraitzea erabaki nuen.

**Nola jaio zen 'Bihotz handiegia' liburua?**

–Ipuinka sortu zen. Idazten hasi eta nire buruarekin egindako tratua bete nuen: ipuinka joan, inolako presiorik gabe. Bost ipuin idatzi ondoren, liburu bat egiteko materiala zegoela ikusi eta editorearekin hitz egitea erabaki nuen. Azkena, seigarrena, liburukako pentsatu nuen bakarra izan zen, besteetan ez bezala. Horregatik, haien artean ez dute erlaziorik, hasiera batean liburu bat idaztea ez zelako nire helburua.

**Zertan oinarritzen zara zure istorioak sortzeko? Zure bizipenekin erlazionatuta daude edo fikziozkoak dira erabat?**

–Normalean fikziozkoak izaten dira. Hala ere, nire lagunen batek izandako esperientziaren batean oinarritutako istorioak, prentsan irakurritako zerbait... izan daitezke. Istorioak sortzeko abiapuntuak milaka izan daitezke. Gainera, ipuin bakoitza sortzeko egoera ezberdina da beti.

**Lehenengo liburua idatzi zenuenetik zertan aldatu da zure idazteko era eta istorioak?**

–Nik uste dut aldatu dela. Espazioan luzatu egin ditut eta sakontasunean ere moldatuz joan direla pentsatzea ere gustatzen zait.

**Euskal Herriko lokalizazioak agertzen dira sarritan. Ezagutzen dituzun lekuetan zentratzea gustoko duzu?**

–Bai, oso garrantzitsua da hori niretzat. Lokalizableak diren espazioak, denborak, pertsonak eta izenak erabiltzea. Nik hemengo izenak jartzen ditut, eta testua Euskal Herrian ainguratzen saiatzen naiz beti.

**Nola ikusten duzu gaur egun euskal literatura?**

–Nire ustez oso momentu ona ari da bizitzen euskal literatura. Gauza ezberdin asko ari da idazten, genero eta ahots ezberdinekin.

**Zer suposatu du zuretzat Euskal Literatura Saria irabazteak?**

–Poz handia sentitu dut, baina baita beldur pixka bat ere. Baina gailentzen den sentimendua poza da.

**Umeentzako liburuak, saiakerak, ipuinak... genero asko lantzen dituzu. Zein da gustokoen duzuna?**

–Ipuina dut gustokoen. Ni ipuingilea naiz, eta beste generoetan idatzitakoak istripuak izan dira, gustora egindakoak, baina istripuak.

**Zergatik aukeratu duzu izenburu hori?**

–Alde batetik, lehengo istorioaren izenburua da, eta orain arte nire liburuei beti jarri izan diet ipuin baten izenburua. Gainera, liburu osoan dagoen zerbait biltzen duela uste dut. Kontradikzioa da: zerbait ona dela ematen du, eskuzabaltasuna positiboa delako. Hala ere, gehiegizko eskuzabaltasunak mugak ere baditu. Gainera, kardiopatia ere da bihotz handiegia izatea. Beraz, batetik onegia izan daitekeen zerbait islatzen du eta bestetik, gaixotasuna. Kontraesan horiek liburuan bertan aurki daitezke.

**Zure lanik onena dela esango zenuke?**

–Hori besteek esan behar duten zerbait da. Nik esan dezakedan gauza bakarra gustora geratu naizela da.

**Hurrengo libururako ideiarik duzu jadanik?**

–Lanean ari naiz jadanik. Sariaren zurrunbiloa pasatu bezain pronto jarraitu nahi dut.

**Nola uztartzen duzu unibertsitateko irakasle lana eta idazketa?**

–Unibertsitatean idatzi ahal izateko sartu nintzen, banekielako denbora utziko zidala idazteko. Ez zen bokazionala izan, baina oso gustora nago. ●

**"Sari honen zurrunbiloa pasatu bezain pronto, hurrengo obra idazten jarraitu nahi dut"**

**"Inolako presiorik gabe sortutako liburua da 'Bihotz handiegia'. Ipuinka sortutako liburua"**






**Ubarrechena y Pennese, ayer.** *Foto: Javi Colmenero*

# Arquitectura para "construir un mundo mejor"

El Coavn propone una reflexionón sobre la contribución de esta práctica en la sociedad

**DONOSTIA** – Los arquitectos urbanistas Isabela Velázquez y Carlos Verdaguer, distinguidos con la Medalla de Oro del Consejo Superior de Colegios de Arquitectos del Estado (Cscae) en 2017, disertaron ayer en Donostia sobre las formas en que la arquitectura interactúa con la sociedad, la cultura y el medio ambiente.

La conferencia, que se celebró en la sede del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro (Coavn) de Gipuzkoa, fue la primera de las actividades que ha organizado esta entidad con motivo de la celebración ayer del Día Internacional de la Arquitectura.

La presidenta del Coavn, Judith Ubarrechena, presentó en una rueda de prensa el programa de actividades que han preparado para la celebración.

Velázquez y Verdaguer, del estudio madrileño GEA 21, inauguraron una semana de actos que, en sintonía con el manifiesto hecho público por el Cscae, girará en torno al papel que juegan los profesionales de la arquitectura "en la construcción de un mundo mejor".

Por otra parte, esta tarde el Colegio inaugurará una exposición con trabajos reales que reflejan la contribución de la arquitectura a la sociedad, acto al que seguirá un coloquio sobre el futuro de la profesión.

El miércoles a mediodía, colocarán una placa de la fundación Do.co.mo.mo en un centro escolar de Pasaia, del arquitecto José María Yturriaga Dou, considerado por el Coavn como "un claro ejemplo del movimiento moderno", y por la tarde, Ángel y Pablo de la Hoz, arquitectos de dos generaciones de la misma familia, disertarán sobre el pasado, presente y futuro del sector.

Una visita técnica a la fábrica de Cementos Rezola y la conferencia *Arquitectura en código abierto: bienes comunes*, a cago de Diego Peris, completarán el viernes, día 5, la programación de esta semana de eventos. – *Efe*